

# Kulturaren hari@ri tiraka

Egunero, astelehenetik ostiralera Euskal Kulturaren Hari@k hainbat euskaldunen postontzi elektronikoak bisitatu ditu, euskal kulturaren inguruko albiste, iritzi eta adierazpenak eskainiz. Kulturarentzat egun guztiak berdinak ez diren arren, Hari@ buletina zortzi urtetan etengabeko jardunean aritu da. Datorren martxoaren 16an jardun horretan beste aurrerapauso bat emango du, euskal kulturaren esparrua gaituz eta itxura guztiz berriturik.

Elisabeth Pombo

**GOIZEKO 8:00AK DIRA.** ARGIAko erredakzio-ko mahaian eguneko prentsa zabalik dago eta kazetariak berau irakurtzen ari dira. Ez dute denborarik kafea hartzeko, ondo gosalduta etortzen dira lanera, egiten duten lanak urgentzia dauka-eta. Prentsa irakurri ondoren, Interneteko komunikabideak gainbegiratu dituzte, eta euskal kulturarekin zerikusia duten albiste, iritzi, adierazpen eta aldizkari ofiziale-tako informazioa aukeratu, erredaktatu eta lotuz hornitu behar dute. Pixkanaka-pixkanaka Euskal Kulturaren Hari@ buletina osatzen joango dira. Albisteak idatzi ahal Sareko Argian ([www.argia.com](http://www.argia.com)) argitaratuko dira lehendabizi eta 11:00ak aldera buletina 2.300 harpidedun baino gehiagori banatuko zaie. Orduan bai, kazetariak kafe-makinara gerturatu dira.

1999. urteko maiatzaz geroztik astelehenetik ostiralera errepikatu da jardun hori ARGIAko erredakzioan eta egunetik egunera egiten den lan hori gero eta estimatuagoa da euskal gizartearen artean. Agian azaldu dugunagatik izango da, buletina ez delako makina baten agindu automatikoen ondorioa, kazetarien lanaren fruitua baizik.

Doako harpidetza bidez zabaltzen den Hari@ buletinak euskal kulturaren egunerokotasuna jasotzen du. Hasieran papereko komunikabideetako informazioa baino ez zen biltzen, baina gaur egun sarean argitaratzen diren komunikabideak ere jasotzen ditu buletinak.

Martxoaren 16tik aurrera berriz, hainbat berrikuntza ekarriko dizkio Hari@k irakurleari. Itxura berria izango du, edukiak beste modu batera antolatuko dira eta Euskal kulturaren esparrua gaituzterako datozen bi atal berri gehituko dira asteen behin: Blog Miran eta Hari@ri tiraka.

**Atal berriak: Blog Miran eta Hari@ri tiraka**  
Biak ostiraletan gehituko zaizkio Hari@ buletinari. Batak munduko hainbat blogen artean



aukeratutako hamar titular inguru bilduko ditu, dagozkion loturekin. Besteak, Hari@ko harpidedunak Sareko Argiara hurbiltzea du helburu. Hau da, Sareko Argian argitaratzen diren eta orain arte buletinean bidali ez diren hainbat eduki bilduko ditu: larunbatetan sare-ratzen den Sarekada ([www.argia.com/sarekada.php](http://www.argia.com/sarekada.php)) erreportajea, igandetako Net Hurbil ([www.argia.com/nethurbil.php](http://www.argia.com/nethurbil.php)), euskal kulturaz gain egunero lantzen ditugun bestelako albisteak eta abar.

Hala, bai Blog Miran zein Hari@ri tiraka atalek euskal kulturaren esparrua gaituzterako dute, harpidedunari orain artekoa baino informazio zabalagoa eskainiz.

**Diseinu eta edukien antolaketa berria**  
Azkenik, itxura ere berritua izango du Hari@k. Diseinu berriak iaz aurkeztu zen Sareko Argia berriaren estetika jarraituko dio eta edukien antolaketa aldatu egingo da. Aurrerantzean albiste, iritzi eta adierazpenak gaika antolatuko dira. Baina eguneko albiste bat edo batzuk ere nabarmenduko dira, aktualitateak hala eskatzen badu. ▢

[http://www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)  
helbidean, Hari@ko doako harpidetza egin daiteke.